# 1.3.5. Estatutuak eta lan hitzarmen kolektiboak

***228/2007 EBAZPENA, martxoaren 14koa, Lan zuzendari nagusiak emana, Nafarroako "Produktu Kimikoen eta Farmaziako Espezialitateen Handizkako Merkataritza Mistoa" sektorerako Lan Hitzarmen Kolektiboaren 2007ko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa erregistratu, gorde eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea erabakitzen duena (espediente zenbakia: 33/2007).***

Departamentu honetan 2007ko martxoaren 8an sartu da "Produktu Kimikoen eta Farmaziako Espezialitateen Handizkako Merkataritza Mistoa" sektorerako hitzarmenaren 2007ko soldaten berrikuspenari buruzko akordioa, negoziazio batzordeak hitzarmen hartan xedaturikoa betez izenpetu eta onetsia (hasierako espedientearen zenbakia: 48/2006).

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua da Lan Hitzarmen Kolektiboaren testua erregistratu, gorde eta argitaratzeko eskumena duena. Eginkizun horiek martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikuluan ezarrita daude, Estatuaren lan arloko eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 11ko 937/1986 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta kontuan hartuta Hitzarmen kolektiboen erregistro eta gordailuei buruzko maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuan ezarritakoa.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1 artikuluak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz.

EBATZI DUT:

1. Nafarroako "Produktu Kimikoen eta Farmaziako Espezialitateen Handizkako Merkataritza Mistoa" sektorearen (3102105 zenbakidun kodea) sektorearen soldaten berrikuspenari buruzko akordioa erregistratzea, Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratu eta Gordetzeko Bulegoan horretarako bereziki prestaturik dagoen liburuan, eta bertako administrazio unitatean testua eta dokumentazioa gordetzea.

2. Ebazpen honen berri ematea negoziazio batzordeari eta adieraztea ebazpenak ez duela administrazio bidea agortzen eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal duela Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

3. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an.–Lan zuzendari nagusia. José María Roig Aldasoro.

**NAFARROAKO "PRODUKTU KIMIKOEN ETA FARMAZIAKO ESPEZIALITATEEN HANDIZKAKO MERKATARITZA MISTOA" SEKTORERAKO LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN 2007KO SOLDATEN BERRIKUSPENARI BURUZKO AKORDIOA**

AKTA

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean, bildu da Nafarroako "Produktu Kimikoen eta Farmaziako Espezialitateen Handizkako Merkataritza Mistoa" sektorerako hitzarmenaren negoziazio batzordea, honela osatua: Javier Taberna Jiménez jauna Asociación de Empresarios de Químicas de Navarra (ADEQUIN)en aldetik, Oskar Rodríguez Caparros jauna ELA sindikatuaren aldetik eta Alicia Sanz Pascual andrea UGT sindikatuaren aldetik,

ERABAKI DUTE

Lehenbizikoa.–Akta honi erantsita datozen soldaten taulen berrikuspena onestea, behin 2006ko Estatuko KPIa ezagutu eta gero, %2,7 izan baita. Hitzarmen honen 6. artikuluan ondokoa ezartzen da: "2006ko soldaten taulak 2006ko egiazko KPIa gehi 0,5 puntu igoko dira". Hori betetzeko 2007. urterako igoera izanen da %3,2 (%2,7 %0,5).

Alde guztiek zuzentzat jo dituzte soldaten taulak, I. eranskinean datozenak, eta akta hau sinatu dute, adostasunaren adierazgarri.

Bigarrena.–Aldeek aipatu taula Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura igorriko dute, arauzko tramitea izan eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitara dezaten.

Aztertzeko beste gairik ez izanik, bilerari bukaera eman zaio eta bertaratuek akta sinatu dute, adostasunaren adierazgarri.

ADEQUINen aldetik, Javier Taberna Jiménez jauna.

ELAren aldetik, Oskar Rodríguez Caparros jauna.

UGTren aldetik, Alicia Sanz Pascual andrea.

I. ERANSKINA

*2007ko soldaten taula*

| LANBIDE KATEGORIAK | 2007 OINARRIZKO SOLDATA |
|---|---|
| Zuzendari teknikoa | 1.812,14 |
| Langileriaren burua | 1.456,51 |
| Salmenten burua | 1.456,51 |
| Erosketen burua | 1.456,51 |
| Arduradun nagusia | 1.456,51 |
| Administrarien burua | 1.543,37 |
| Biltegiko burua | 1.243,39 |
| Sukurtsaleko burua | 1.153,73 |
| Kontularia | 1.093,95 |
| Biltegiko Ataleko burua | 1.093,95 |
| Establezimenduko arduraduna | 1.093,95 |
| Saltzaile bidaiaria | 1.093,95 |
| Saltzailea | 1.045,61 |
| Administrari-ofiziala | 1.093,95 |
| Saltzaile nagusia | 1.093,95 |
| Lanbideko profesionala | 1.006,85 |
| 25 urtetik goitiko adm. laguntzailea | 1.006,85 |
| Urgazleak | 958,45 |
| Mutilak | 958,45 |
| 20 urtetik goitiko kutxako laguntzailea | 958,45 |
| Telefonistak | 958,45 |
| 25 urtetik beheitiko adm. laguntzailea | 958,45 |
| Lanbideko urgazlea | 958,45 |
| Prestakuntza kontratua, 1. urtekoa | 620,34 |
| Prestakuntza kontratua, 2. urtekoa | 683,08 |

F0704936

***314/2007 EBAZPENA, apirilaren 20koa, Lan zuzendari nagusiak emana, Nafarroako "Irakaskuntza pribatu itundua" sektorearen itun kolektiboa erregistratu, gorde eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea erabakitzen duena (espediente zenbakia: 3/2007-L).***

2007ko apirilaren 4an departamentu honetan sartu da Nafarroako "Irakaskuntza pribatu itundua" sektorearen itun kolektiboa, negoziazio batzordeak izenpetu eta onetsia (espediente zenbakia: 3/2007-L).

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak bere esku ditu lan hitzarmen kolektiboak erregistratu, gorde eta argitaratzeko eginkizunak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikuluan aipatzen direnak, eta hori Lan zerbitzuak Estatuko Administraziotik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen apirilaren 11ko 937/1986 Errege Dekretuan ezarritakoaz baliatuz, eta kontuan izanik Lan hitzarmen kolektiboak erregistratu eta gordetzeari buruzko maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan xedatutakoa.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1 artikuluak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz.

EBATZI DUT:

1. Nafarroako "Irakaskuntza pribatu itundua" sektorearen itun kolektiboa erregistratzea Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratu eta Gordetzeko Bulegoan horretarako bereziki prestaturik dagoen liburuan, eta bertako administrazio unitatean testua eta dokumentazioa gordetzea.

2. Ebazpen honen berri ematea negoziazio batzordeari eta adieraztea ebazpenak ez duela administrazio bidea agortzen eta honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal duela Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

3. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2007ko apirilaren 20an.–Lan zuzendari nagusia, José María Roig Aldasoro.

**IRAKASKUNTZA PRIBATU ITUNDUAREN SEKTOREAREN LAN HITZARMEN KOLEKTIBOA**

Iruñean, 2007ko martxoaren 30ean, sindikatuen deiari erantzunez ANEGen egoitzan bildurik, osorik edo partzialki funts publikoekin sostengatutako irakaskuntza pribatuko enpresen sektorean ordezkari gehien duten enpresa elkarteek eta sindikatuek, Nafarroako Foru Komunitatean soldata-osagarriak fintzearren, honako hau adierazi dute:

1. Osorik edo partzialki funts publikoekin sostengatutako irakaskuntza pribatuko enpresen V. hitzarmeneko zortzigarren xedapen gehigarriak aurreikusten du enpresa elkarteek eta sindikatuek, beren ordezkarien gehiengoz, erabakitzen ahal dutela hitzarmen horretan soldata-osagarriak sartzea, hark ukitzen dituen langileentzat.

Aurrekoarekin bat, honako hau erabaki dute:

1.–V. hitzarmenaren eraginpean dauden ordainketa delegatuko irakaskuntzako langileek eta irakaskuntzakoak ez direnek 2007. urtean, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, soldata-osagarri bat jasoko dute; horrek, oinarrizko sol-

data nazionalarekin batera, "Nafarroako hilabetea" delakoa osatzen du. Osagarriaren zenbatekoa I. eranskinean ageri da eta hileko 14 ordainsaritan ordainduko da (hots, hileko ordainsari guztietan eta aparteko sarietan). Diru hori lanaldi osoa egiteko kontratua duten langileei ordainduko zaie eta proportzionalki, berriz, lanaldi partzialeko kontratua dutenei.

2.–Ordainketa delegatuko langileei aipatu osagarria ordaintzeko baldintza bat izanen da: ordainketa Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egin behar du. Enpresek, beraz, ez dute zuzenean inolako kopururik ordainduko kontzeptu horrengatik eta, hala, ez dira horretara behartuta egonen. Ordainketa delegatua ez duten langileei, berriz, ikastetxeek berek ordainduko diete osagarri hori.

3.–V. hitzarmenaren azken xedapenak ezartzen duenaren arabera, itundutako hobekuntza ekonomikoak 2007. urtean legez ezartzen direnek eta enpresek berek ordaintzen dituztenek xurga ditzakete.

4.–Akordio hau igorriko zaio osorik edo partzialki funts publikoekin sostengatutako irakaskuntza pribatuko enpresen V. hitzarmen kolektiboko Batzorde Paritarioari, erakunde eskudunean gorde dezan. Isabel Autor Araiz andreari ahalmena ematen zaio igorpen hori egiteko.

SOLDATEN TAULA - 2007. URTEA

| KOD. | LANBIDE KATEGORIA | HITZARM. O.S. | NAF. O.S. | NAF. HIL. 2007 | HITZARM. HIRURT. | FORU KOM. HIRURT. | NAF. HIRURTEKOA 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IRAKASLEAK | | | | | | | |
| 1.1.1 | H.H.ko irakaslea, 1. ziklo integratua | 1.464,13 | 0,00 | 1.464,13 | 35,03 | 0,00 | 35,03 |
| 1.1.2 | Teknikaria, 1. ziklo integratua | 1.117,91 | 0,00 | 1.117,91 | 30,33 | 0,00 | 30,33 |
| 1.2.1 | H.H.ko irakaslea, 2. ziklo integratua | 1.475,53 | 459,80 | 1.935,33 | 35,30 | 4,84 | 40,14 |
| 1.3.1 | L. Hezkuntzako irak. | 1.475,53 | 459,80 | 1.935,33 | 35,30 | 4,84 | 40,14 |
| 1.4.A.1 | DBHko 1. eta 2. mailetako irak. | 1.475,53 | 454,23 | 1.929,76 | 35,30 | | 35,30 |
| 1.4.B.1 | DBHko 3. eta 4. mailetako irak. | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 5,68 | 50,18 |
| 1.5.1 | Batxilergoko irak. | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 5,68 | 50,18 |
| 1.6.1 | Erdi eta goi mailako BLHko eta GGPko irak. | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 4,07 | 48,57 |
| 1.6.2 | Erdi eta goi mailako BLHko eta GGPko irak. albokoa, agregatua edo laguntzailea | 1.568,15 | 469,93 | 2.038,08 | 44,50 | 2,74 | 47,24 |
| | Batxilergoko osagarria | 72,57 | 10,95 | 83,52 | | | |
| | DBHko 3. eta 4. mailetako Naf. osagarria | | 67,75 | 67,75 | | | |
| | Erdi eta goi mailako BLHko eta GGPko Naf. osag. | | 67,75 | 67,75 | | | |
| | DBHko 1. eta 2. mailetako osagarria-Maisu-maistrak (diplom.) | | 108,44 | | 108,44 | 5,02 | |
| | DBHko 1. eta 2. mailetako osagarria-Lizentziatuak | 64,31 | 44,13 | 108,44 | 2,30 | 2,72 | |
| IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK | | | | | | | |
| ADMINISTRAZIOA | | | | | | | |
| 2.2.1 | Administrazioko edo idazkaritzako burua | 1.138,70 | 365,56 | 1.504,26 | 35,14 | 4,78 | 39,92 |
| 2.2.2 | Bulegoburua | 958,97 | 307,83 | 1.266,80 | 30,02 | 4,09 | 34,11 |
| 2.2.3 | Kontulari-ofiziala | 914,91 | 293,72 | 1.208,63 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.2.4 | Harreragilea. Telefonista. | 800,79 | 257,28 | 1.058,07 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.2.5 | Administrari laguntzailea | 800,79 | 257,28 | 1.058,07 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| LAGUNTZAILEAK | | | | | | | |
| 2.2.1 | Zaintzailea | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| ZERBITZU OROKORRAK | | | | | | | |
| Zaintza eta atezaintza | | | | | | | |
| 2.3.A.1 | Eskolazaina | 958,81 | 286,90 | 1.245,71 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.A.2 | Atezaina | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.A.3 | Zaindaria. Gauzaina | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Garbiketako langileak | | | | | | | |
| 2.3.B.1 | Gobernantea | 958,81 | 286,90 | 1.245,71 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.B.2 | Joste, garbitze eta lisatze lanetako langilea | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Sukaldeko eta jantokiko langileak | | | | | | | |
| 2.3.C.1 | Sukaldeko burua | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.2 | Sukaldaria | 872,07 | 260,91 | 1.132,98 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.3 | Sukaldari laguntzailea | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.4 | Jantoki zerbitzuko langilea | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Mantentze-lan. eta zerbitzu orokorretako langileak | | | | | | | |
| 2.3.D.1 | Lanbideetako lehen mailako ofiziala | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.D.2 | Lanbideetako bigarren mailako ofiziala | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.D.4 | Mantentze-lanak, lorategia eta beste | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Gidariak | | | | | | | |
| 2.3.E | Gidariak | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |

F0706831

## 1.3.6. Beste batzuk

***27/2007 FORU AGINDUA, urtarrilaren 29koa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana, Kutxari Nafarroako Ogasun Publikoaren gordailu-entitate laguntzaile izaera aitortzen diona.***

2006ko abenduaren 19an, Kutxak Nafarroako Zerga Ogasunaren gordailu-entitate laguntzaile izaera lortzeko baimena eskatu zuen.

Nafarroako Foru Komunitateko dirubilketari buruzko erregelamendua onesten duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren 78. artikuluak ezartzen du Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu behar zaiola izaera hori lortzeko baimena. Beste alde batetik, departamentu horretako kontseilariari dagokio kasuan kasuko kontuak irekitzeko baimena ematea, abenduaren 26ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 93.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez,

AGINDU DUT:

Lehena.–Kutxari (IFZ: G-20336251) Nafarroako Ogasun Publikoaren gordailu-entitate laguntzaile izaera ematea.

Bigarrena.–Kutxari baimena ematea kontu korronte orokor bat, Nafarroako Foru Komunitatearen izenean, eta behar dituen dirubilketako kontu murriztuak, "Nafarroako Foru Komunitatea, dirubilketan laguntzeko kontu mugatua" izenean, irekitzeko.

Hirugarrena.–Aipatu entitateak Nafarroako Foru Komunitateko dirubilketari buruzko erregelamendua onesten duen uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren II. liburuaren II. kapituluan ezarritakoa beteko du.

Laugarrena.–Kontabilitate Atalak dagokion kontabilitate orokorreko kontua irekiko du.

Bosgarrena.–Interesak berrikusi arte, kontu korronte orokorraren interes tasa entitatearen interes arrunta izanen da eta seihilero ordainduko dira.

Seigarrena.–Foru agindu hau honako hauei jakinaraztea: Kutxa, Dirubilketa Zerbitzua eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Diruzaintza Atala eta Kontabilitate Atala.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an.–Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, *Francisco J. Iribarren Fentanes.*

F0707596

## 1.3.5. Estatutos y convenios colectivos

***RESOLUCION 228/2007, de 14 de marzo, del Director General de Trabajo, por la que se acuerda el registro, depósito y publicación en el Boletin Oficial de Navarra del Acuerdo de Revisión Salarial, correspondiente al año 2007, del Convenio Colectivo de trabajo del sector "Comercio Mixto Mayorista de Productos Químicos y Especialidades Farmacéuticas", de Navarra (Expediente número: 33/2007).***

Con fecha 8 de marzo de 2007 ha tenido entrada en este Departamento el Acuerdo de Revisión Salarial del Convenio del sector "Comercio Mixto Mayorista de Productos Químicos y Especialidades Farmacéuticas", correspondiente al año 2007, suscrito y aprobado por la Comisión Negociadora, en cumplimiento de lo pactado en el citado Convenio (Expediente inicial número 48/2006).

Siendo el Departamento de Industria y Tecnología, Comercio y Trabajo competente para efectuar las funciones de registro, depósito y publicación de los Convenios Colectivos de trabajo, establecidas en el artículo 90 del Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, en virtud de lo establecido en el Real Decreto 937/1986, de 11 de abril, de transferencias laborales estatales a la Comunidad Foral de Navarra; y teniendo en cuenta lo dispuesto en el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo, sobre registro y depósito de Convenios Colectivos.

De conformidad con lo expuesto, y en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 22.1 de la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra,

RESUELVO:

1. Proceder al registro del Acuerdo de Revisión Salarial del sector "Comercio Mixto Mayorista de Productos Químicos y Especialidades Farmacéuticas" (Código número 3102105), de Navarra, en el libro especial habilitado al efecto que obra en el Negociado de Registro, Depósito de Convenios y Acuerdos Colectivos de Trabajo, en cuya unidad administrativa queda en depósito su texto y documentación.

2. Notificar esta Resolución a la Comisión Negociadora, advirtiendo que contra la misma, que no agota la vía administrativa, cabe interponer recurso de alzada ante el Consejero de Industria y Tecnología, Comercio y Trabajo, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

3. Publicar esta Resolución en el Boletin Oficial de Navarra para su general conocimiento.

Pamplona, 14 de marzo de 2007.–El Director General de Trabajo. José María Roig Aldasoro.

**ACUERDO DE REVISION SALARIAL, CORRESPONDIENTE AL AÑO 2007, DEL CONVENIO COLECTIVO DE TRABAJO DEL SECTOR "COMERCIO MIXTO MAYORISTA DE PRODUCTOS QUIMICOS Y ESPECIALIDADES FARMACEUTICAS", DE NAVARRA**

ACTA

En Pamplona a 5 de marzo de 2007, se reúne la Comisión Negociadora del Convenio del Comercio Mixto Mayorista de Productos Químicos y Especialidades Farmacéuticas, integrada por don Javier Taberna Jiménez actuando en representación de la Asociación de Empresarios de Químicas de Navarra (ADEQUIN), don Oskar Rodríguez Caparros actuando en representación de la central sindical ELA y doña Alicia Sanz Pascual, la cual actúa en representación de la central sindical UGT,

ACUERDAN:

Primero.–Aprobar la revisión salarial de las tablas salariales anexas a la presente acta una vez conocido el IPC estatal del año 2006 que ha sido de 2,7%, por lo que con el fin de cumplir con lo establecido en el artículo 6 del vigente Convenio, que establece que: "las tablas salariales del año 2006 se incrementarán con el IPC real del año 2006 más 0,5 puntos", la subida para el año 2007 será de un 3,2% (2,7% + 0,5%).

Las partes estiman correctas las tablas salariales adjuntadas como anexo I, firmando la presente acta y su anexo en prueba de conformidad.

Segundo.–Las partes se comprometen a efectuar el trámite reglamentario remitiendo la tabla de referencia al Departamento de Industria, Comercio, Turismo y Trabajo del Gobierno de Navarra para su trámite reglamentario y publicación en el Boletin Oficial de Navarra.

Y sin más asuntos que tratar se levanta la sesión firmando todos los asistentes en prueba de conformidad.

Por ADEQUIN, Don Javier Taberna Jiménez

Por ELA, Don Oskar Rodríguez Caparros.

Por UGT, Doña Alicia Sanz Pascual.

ANEXO I

*Tabla salarial para el año 2007*

| CATEGORIAS PROFESIONALES | 2007 SALARIO BASE |
|---|---|
| Director Térmico | 1.812,14 |
| Jefe de Personal | 1.456,51 |
| Jefe de Ventas | 1.456,51 |
| Jefe de Compras | 1.456,51 |
| Encargado General | 1.456,51 |
| Jefe Administrativo | 1.543,37 |
| Jefe de Almacén | 1.243,39 |
| Jefe de Sucursal | 1.153,73 |
| Contable | 1.093,95 |
| Jefe Sección Almacén | 1.093,95 |
| Encargado de Establecimiento | 1.093,95 |
| Viajante | 1.093,95 |
| Dependiente | 1.045,61 |
| Oficial Administrativa | 1.093,95 |
| Dependiente Mayor | 1.093,95 |
| Profesional de Oficio | 1.006,85 |
| Auxiliar Admtva. de más de 25 años | 1.006,85 |
| Ayudantes | 958,45 |
| Mozos | 958,45 |
| Auxiliar caja de más de 20 años | 958,45 |
| Telefonistas | 958,45 |
| Aux. Admtiva. menor de 25 años | 958,45 |
| Ayudante de Oficio | 958,45 |
| Contrato Formación 1.º año | 620,34 |
| Contrato Formación 2.º año | 683,08 |

F0704936

***RESOLUCION 314/2007, de 20 de abril, del Director General de Trabajo, por la que se acuerda el registro, depósito y publicación en el Boletin Oficial de Navarra el Pacto Colectivo del sector "Enseñanza Privada Concertada", de Navarra (Expediente número: 3/2007-L).***

Con fecha 4-4-2007 ha tenido entrada en este Departamento el Pacto Colectivo del sector "Enseñanza Privada Concertada", de Navarra, suscrito y aprobado por la Comisión Negociadora (Expediente número 3/2007-L).

Siendo el Departamento de Industria y Tecnología, Comercio y Trabajo competente para efectuar las funciones de registro, depósito y publicación de los Convenios Colectivos de trabajo, establecidas en el artículo 90 del Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, en virtud de lo establecido en el Real Decreto 937/1986, de 11 de abril, de transferencias laborales estatales a la Comunidad Foral de Navarra; y teniendo en cuenta lo dispuesto en el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo, sobre registro y depósito de Convenios Colectivos, así como en el artículo 59.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

De conformidad con lo expuesto, y en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 22.1 de la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra,

RESUELVO:

1. Proceder al registro del Pacto Colectivo del sector "Enseñanza Privada Concertada", de Navarra, en el libro especial habilitado al efecto que obra en el Negociado de Registro, Depósito de Convenios y Acuerdos Colectivos de Trabajo, en cuya unidad administrativa queda en depósito su texto y documentación.

2. Notificar esta Resolución a la Comisión Negociadora, advirtiendo que contra la misma, que no agota la vía administrativa, cabe interponer recurso de alzada ante el Consejero de Industria y Tecnología, Comercio y Trabajo, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

3. Publicar esta Resolución en el Boletin Oficial de Navarra para su general conocimiento.

Pamplona, 20 de abril de 2007.–El Director General de Trabajo, José María Roig Aldasoro.

**CONVENIO COLECTIVO SECTOR ENSEÑANZA PRIVADA CONCERTADA**

En Pamplona, a 30 de marzo de 2007, reunidas en la sede de A.N.E.G. las organizaciones empresariales y sindicales más representativas en el sector de la enseñanza privada sostenidas total o parcialmente con fondos públicos, previa convocatoria de las organizaciones sindicales, al objeto de fijar complementos salariales en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra, manifiestan lo siguiente:

1.º Que la Disposición Adicional Octava del V Convenio de Empresas de Enseñanza Privada Sostenidas Total o Parcialmente con Fondos Públicos, prevé la posibilidad de que las organizaciones patronales y sindicales por mayoría de su respectiva representatividad acuerden la incorporación a dicho Convenio de complementos salariales para el personal afectado por el mismo.

Que en consonancia con lo anterior, acuerdan lo siguiente:

1.–El personal docente en pago delegado y el personal no docente afectado por el V Convenio percibirá el año 2007, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre, un complemento salarial que junto al salario base nacional, configuran el denominado "Mes Navarra", por la cuantía que se recoge en el Anexo I, en 14 pagas mensuales (esto es, en cada pago mensual así como en las gratificaciones extraordinarias). Dicho salario será abonado a aquellos trabajadores contratados a jornada completa y proporcionalmente a los contratados a jornada parcial.

2.–El pago del mencionado salario al personal en pago delegado estará condicionado a que su abono sea efectuado por el Departamento de Educación y

Cultura de la Comunidad Foral de Navarra. Las empresas, por tanto, no abonarán directamente cantidad alguna por este concepto y, en consecuencia, no estarán obligadas a ello. El pago del citado salario al personal no incluido en pago delegado se realizará directamente por parte de los centros.

3.–Tal como establece la Disposición Final del V Convenio, las mejoras económicas pactadas podrán ser absorbidas por las que en el año 2007 puedan establecerse por disposición legal y por las que, con carácter voluntario, vengan abonando las empresas.

4.–Este Acuerdo será enviado a la Comisión Paritaria del V Convenio Colectivo de Empresas de Enseñanza Privada Sostenidas Total o Parcialmente con Fondos Públicos para que proceda a depositarlo ante el organismo competente, facultándose a Isabel Autor Araiz para que proceda a dicho envío.

TABLAS SALARIALES - AÑO 2007

| COD. | CATEGORIA PROFESIONAL | SB CONVENIO | Cº FORAL SB | MES NAV. 2007 | TRIENIO CONVENIO | Cº FORAL TRIENIO | TRIENIO NAV. 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PERSONAL DOCENTE | | | | | | | |
| 1.1.1 | Prof. E. Infantil 1.º ciclo integrado | 1.464,13 | 0,00 | 1.464,13 | 35,03 | 0,00 | 35,03 |
| 1.1.2 | Técnico 1.º ciclo integrado | 1.117,91 | 0,00 | 1.117,91 | 30,33 | 0,00 | 30,33 |
| 1.2.1 | Prof. E. Infantil 2.º ciclo concertado | 1.475,53 | 459,80 | 1.935,33 | 35,30 | 4,84 | 40,14 |
| 1.3.1 | Prof. E. Primaria | 1.475,53 | 459,80 | 1.935,33 | 35,30 | 4,84 | 40,14 |
| 1.4.A.1 | Prof. 1.º y 2.º curso ESO | 1.475,53 | 454,23 | 1.929,76 | 35,30 | | 35,30 |
| 1.4.B.1 | Prof. 3.º y 4.º curso ESO | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 5,68 | 50,18 |
| 1.5.1 | Prof. Bachiller | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 5,68 | 50,18 |
| 1.6.1 | Profesor FPE GM, FPE GS, PGS | 1.732,75 | 465,39 | 2.198,14 | 44,50 | 4,07 | 48,57 |
| 1.6.2 | Prof. Adjunto, Agregado o Auxiliar FPE GM, FPE GS, PGS | 1.568,15 | 469,93 | 2.038,08 | 44,50 | 2,74 | 47,24 |
| | Complemento Bachillerato | 72,57 | 10,95 | 83,52 | | | |
| | Complemento 3.º y 4.º c. ESO foral | | 67,75 | 67,75 | | | |
| | Compl. FPE GM, FPE GS, PGS foral | | 67,75 | 67,75 | | | |
| | Complemento 1.º Y 2.º curso ESO-Maestros (diplomados) | | 108,44 | | 108,44 | 5,02 | |
| | Complemento 1.º Y 2.º curso ESO-Licenciados | 64,31 | 44,13 | 108,44 | 2,30 | 2,72 | |
| PERSONAL NO DOCENTE | | | | | | | |
| ADMINISTRACION | | | | | | | |
| 2.2.1 | Jefe Administración o Secretaría | 1.138,70 | 365,56 | 1.504,26 | 35,14 | 4,78 | 39,92 |
| 2.2.2 | Jefe Negociado | 958,97 | 307,83 | 1.266,80 | 30,02 | 4,09 | 34,11 |
| 2.2.3 | Oficial. Contable | 914,91 | 293,72 | 1.208,63 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.2.4 | Recepcionista. Telefonista. | 800,79 | 257,28 | 1.058,07 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.2.5 | Auxiliar Administrativo | 800,79 | 257,28 | 1.058,07 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| PERSONAL AUXILIAR | | | | | | | |
| 2.2.1 | Cuidador | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| SERVICIOS GENERALES | | | | | | | |
| Portería y vigilancia | | | | | | | |
| 2.3.A.1 | Conserje | 958,81 | 286,90 | 1.245,71 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.A.2 | Portero | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.A.3 | Guarda. Sereno | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Personal de limpieza | | | | | | | |
| 2.3.B.1 | Gobernante | 958,81 | 286,90 | 1.245,71 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.B.2 | Empl. serv. limpieza, costura, lavado y plancha | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Personal cocina y comedor | | | | | | | |
| 2.3.C.1 | Jefe de cocina | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.2 | Cocinero | 872,07 | 260,91 | 1.132,98 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.3 | Ayudante de cocina | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.C.4 | Empleado servicio comedor | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Pers. mant. y Of. generales | | | | | | | |
| 2.3.D.1 | Oficial primera de oficios. | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.D.2 | Oficial segunda de oficios. | 836,40 | 250,24 | 1.086,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| 2.3.D.4 | Empleado de mantenimiento, jardín y oficios varios | 800,79 | 229,67 | 1.030,46 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |
| Conductores | | | | | | | |
| 2.3.E | Conductores | 914,91 | 273,73 | 1.188,64 | 29,67 | 4,04 | 33,71 |

F0706831

## 1.3.6. Otros

***ORDEN FORAL 27/2007, de 29 de enero, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se reconoce a Caja Guipúzcoa San Sebastián "Kutxa" la condición de Entidad de Depósito Colaboradora de la Hacienda Pública de Navarra.***

Kutxa, con fecha 19 de diciembre de 2006, solicita la autorización para obtener la condición de Entidad de Depósito Colaboradora de la Hacienda Tributaria de Navarra.

Estando establecido en el artículo 78 del decreto Foral 177/2001, de 2 de julio, del Reglamento de Recaudación de la Comunidad Foral de Navarra que dicha condición debe solicitarse al Departamento de Economía y Hacienda y correspondiendo al Consejero del Departamento la autorización de la apertura de las cuentas correspondientes según establece el artículo 93.1 de la Ley Foral 8/1988, de 26 de diciembre, de la Hacienda Pública de Navarra.

En consecuencia

ORDENO:

Primero.–Calificar a Caja Guipúzcoa San Sebastián Kutxa (C.I.F. G-20336251) como Entidad Colaboradora de la Hacienda Pública de Navarra.

Segundo.–Autorizar a Caja Guipúzcoa San Sebastián "Kutxa" a la apertura de una cuenta corriente general a nombre de la Comunidad Foral de Navarra y las cuentas restringidas de recaudación necesarias a nombre de "Comunidad Foral de Navarra, Cuenta Restringida de colaboración en la Recaudación".

Tercero.–La citada entidad deberá cumplir con lo establecido en el Capítulo II del Libro II del Decreto Foral 177 / 2001 de 2 de julio del Reglamento de Recaudación de la Comunidad Foral de Navarra.

Cuarto.–Por la Sección de Contabilidad se procederá a dar de alta la correspondiente cuenta de Contabilidad General.

Quinto.–En tanto no proceda a su revisión, el tipo de interés de la cuenta corriente general será el interés ordinario de la Entidad pagadero por semestres.

Sexto.–Notificar esta Orden Foral a Caja Guipúzcoa San Sebastián "Kutxa", al Servicio de Recaudación, a la Sección de Tesorería y a la Sección de Contabilidad del Departamento de Economía y Hacienda.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletin Oficial de Navarra.

Pamplona, 29 de enero de 2007.–El Consejero de Economía y Hacienda, *Francisco J. Iribarren Fentanes.*

F0707596